

«Ez dut loturarik nahi»

Amaia Ortegak ez du federatzeko asmorik, eskaintzak izan arren; lehen ez omen zuen batere gustuko korrika egitea

Gorka Zabaleta / Donostia

KORRIKA aritzeko ezohiko altuera du 28 urteko hernaniar honek —Donostian bizi da—. Helmugara irribarretsu iristen dela aurpegiatzen diote lagunek, beraiek mingaia arrastaka daramaten bitartean. Amaia Ortega kirolari berezia da. Baina are bitxiagoa da kirolaz duen pentsakera. Igandean ezusteko ederra eman zuen: 1:12:45eko denbora eginda irabazi egin zuen. Klub bat baino gehiago du atzetik, lasterka egiteko duen gaitasunaz liluratuta. Berak, ordea, «ezetz», nahiago duela bere kasa ari. Ez omen du «loturarik» nahi. «Zergatik?», galdetu diogu, eta hona hemen bere erantzuna: «Nik badakit zer den kirol federatua egitea. Egunero zerbait egitera behartuta zaude, jarritako lana egin behar duzu, eta nik nahiago dut neure kasa ibili. Hona etortzen naiz entrenatza, eta egunaren arabera ikusteren dut zer egiteko gogo dudana. Horrela oso ondo pasatzen dut, eta nahiago dut ez aldatu. Nire lana daukat, familia, eta nahiago dut entrenamenduak neure kabuz egin, eta ez badi-tut egiten neure buruarekin hase-rretzen naiz eta ki-to».

Beti izan da kirolzalea. Korrika egiten hasi aurretik saskibaloian urte dezente eman zituen, zuzenbideko ikasketak amaitu zituen arte: «Donostia Las Banderas taldean jokatu nuen aurrena, eta gero UPVn. Orduan ez nuen batere gustuko korrika egitea, ez bainekien atsegina izan zitekeela, eta lagunekin mintzatzeko aukera ematen zuela. Sofritzeko zerbait zela pentsatzen nuen, eta, horregatik, askotan zuhaitzen atzean ezkutatzen nintzen itzuli gutxiago egiteko». Baina ikasketak amaitu zituenean saskibaloia bertan behera uztea erabaki zuen, eta orduan konturatu zen korrika egitea gustagarria izan zitekeela:

AMAIA ORTEGA Kirol federatua

■ ■ ■ «Nik badakit zer den kirol federatua egitea. Egunero jarritako lana egin behar duzu, eta nik nahiago dut neure kasa ibili»



GARI GARAIALDE

Amaia Ortegak zuzenbide ikasketak egin zituen, eta gaur egun Donostiako abokatu bulego batean dihardu lanean.

«Ikasketak amaitu eta lana bilatzen hasi nintzen. Erabaki nuen ez nuela inorekin konpromisorik hartu entrenamenduetara joateko, eta utzi egin nuen. Senarrak ere utzi egin zuen saskibaloia, eta korrika egiten hasi zen lagunekin. Beraiekin joateko esan zidan, probatzeko. Eta halaxe hasi nintzen. Poliki-poliki konturatu nintzen korrika egitea ere atsegina izan daitekeela. Ez nuen nire gorputza are-»

to batean ikusten *aerobic* egiten».

Berak zuzentzen ditu bere entrenamenduak, berak erabaki egun bakoitzean zer egin nahi duen, pixkanaka lagunen aholkuak onartzen hasi den arren: «Jaz Behobia prestatzen ari nintzela eta, serie batzuk egiteko esan zidaten, baina nik ez nuen amore eman. Aurten egin ditut, eta ikusi dut asko hobetzen dela. Dena den, neuk erabakitzen dut zer egin». Bere kasa aritzeagatik ez pentsa Amaia ez dela behar

bezala prestatzen. «Astean behin hartzen dut atsedean; bestetan korrika egitera etortzen naiz Atletico San Sebastianera —bertako bazkide da—, hemengo lagun talde batekin», azaldu digu.

Amaiak etorkizunean orain arte bezalaxe jarraitu nahi du, aske. Mendirako bota batzuk erosi omen ditu,

lagunekin ibilaldiak egiteko. Hori bai, korrika egiten jarraituko du: «Maratoian parte hartu nahi nuen, baina lagunek ez didate utzi, gorputza ez baitut prestatuta. Hori bai dela gogorra, ez Behobia! Baliteke egunen batean maratoia korritzea. Ez dut baztertzen, baina oraingoz ez».



EGUNKARIA

Saskibaloiko jokalaria izandakoa. Amaia Ortegak Donosti Las Banderas eta UPV taldeetan jokatu zuen saskibaloian. Beraz, badaki kirol federatuak diziplina batera lotzen zaituela, eta berak ez du holakorik nahi.

Fortuna: «Gu prest gaude Udalarekin hitz egiteko»

Erredakzioa / Donostia

FORTUNA Klubeko zuzendaritzak bilera berezia izan zuen herenegun gauean, lasterketa bera eta Udalarekin izandako arazoengatik hartu beharreko neurriak aztertze-ko. Klubeko Juanjo Rodriguezek atzo Euskadi Irratian azaldu zuenez, Udalarekin mintzatzeko borondatea badute: «Uste dut badagoela denbora datorren urterako egoera honi buelta emateko. Gure aldetik borondatea ere azaldu dugu. Guztion onerako, Bulebarrera itzuli nahi dugu, baina guzti horri buruz hitz egin beharko da. Nik uste dut azkenean konturatuko direla zer den onena lasterketarentzat eta Donostiarentzat».

Igandekoaren ondoren, bati baino gehiago burutik pasatu zaio lasterketa gehiago ez antolatzea, baina hori beroaldiaren ondorioa baino ez omen da izan: «Momentu batzuetan pentsatu izan dugu lasterketa beste leku batera eramatea edota ez antolatzea, baina hori beroan botatako gauzak baino ez dira izan. Nik konfiantza badut egoera konponduko dela, eta datorren urtean ere Behobiatik Donostiarara izango dela lasterketa».

Udalak eta Odon Elorza alkateak azalduzako jarraera mendekua izan omen da: «Mendeku bat izan dela uste dugu, aurretik egin genituen kritikengatik. Ez dira inoiz gugana etorri irtenbide bat bilatzeko eta nahiago izan dute beste bide hau hartu, baina azkenean konturatuko dira horrela ez dela ezer konpontzen».

Juanjo Rodriguezek berriro gogora ekarri zituen igandean udaltzainen partetik jasan behar izan zituztenak: «Azken orduan ez ziguten espaloietan ezer jartzen utzi, eta ezin izan genuen tribuna bere lekuan jarri. Udaltzaingoak Iparraldetik etortitako zenbait auto eraman zituen garabiarekin, eta horrelako beste hainbat detaile izan ziren; benetan tamalgarriak».